

Gure liburuak

Lengo zenbakian aitatutakoakaz gaiñera, ba-dira gure KARMEL aldizkariaren liburutegian, beste oneik be salgei.

I.—LONTZI ABA'renak

1) *Lontzi Aba'ren Ipuintxuak*. Santiago de Chile, 1947. Ormaetxea'tar Lontzi Aba, San Pedro Boroa'ko semea, euskaltzale zintzo ta jatorra genduan, orain amar bat urte an Txile'n illa. Or-emen asko idatzi eban bere bizitzan, bai ta itzaldi sakon guntsuak egin be, amaika erritan, beti arima-zale. Bere sort-lurretik urrin argitara emoniko liburu polit eta jakingarri onek 100 ipuin ditu, guztira. 106 orrialde; 7 laurle-kotan salgei.

2) *Lontzi Aba'ren bigarren Ipuintxuak*. Santiago de Chile, 1948. Lau ta errez, oso irakur-errez egiñak oneik be. Ba-dira olako saillak beste izkuntze-tan; gurean be, zergaitik ez? Gu iñor baiño ipuin-zaleago gareala esan daroa-gu. Guztiz, 106 orrialde dabezan liburu ontakoak 100 ipuin; 7 pesetan sal-tzen doguz.

II.—AITA GABIREL JAUREGI RENAK

1) *Pisia*. Gaubeka'ren irarkolan, Bermeo, 1935. Aramaio'n jaiotako Aita karmeldar langille au, Gazteiz'en bizi izan zan luzaro, Pisi ta Kimi irakasle. Gaiok erderaz erabilli bear izan arren, maite eban bere izkuntza gurasoekandi-koa, ta azkenik be, euskeraz emon eus-kuzan gai zaillok. Aurretik iñok sekula arrotu bagako arlo au egoki ta gizonki-ro erabilli eban, bai gaia bai euskera bere mende an eukazala erakutsirik. 304 orrialde ditu liburuak, marrazki dotorez jantzita. 25 pesetan salgei.

2) *Kimia*. Gaubeka, Bermeo, 1936. Lenengoaren antzeko dozu bigarren au

be, azalez ta mamiñez. Jakintza-izena parra-parra ta euskal-gogoari dagokic nez darabilz eskuarki. Gai oneitaz iñol idaztekotan, liburu biok aurean euk bearko ditu, batez be teknika izeneta rako. 256 orrialde; 25 pesetan saldu.

III.—AITA I. LARRAKOETXEA' RENAK

Grimm Anayen Ipuñak.—Alvarez'en irarkolan, Bilbao, 1931. Ipuin mordo ederra, egoki be egoki doitxeratik euskeratuta. Arrati aldeko euskerea batez be, bai zuka bai ika, joritsu ta gozo darabil. Liburu punterengoa gure izke-rra, baitik bat aditza edo berboa, sakon ta artetsu ikasteko. 328 orrialde ta 25 laurtekotan salgei.

Liburu barria.—INTZA BEGIETAN, Sagartzazu'tar Kauldi, «Satarka», Industria Gráfica Valverde, Donosti, 1957. Ondarribi'tarra dogu gizon apal au. Ogei urteko zala, 1925'garren aldean, Donostia'n Tomas Deun egunean ospatu oi zan Euskal-jai an irabazi eban bere le-nengo saria. Egun aretan bertan joan ei zan, oso arroxko, amak lagunduta, sa-ria jasotera. Gerora, sari asko irabazi ditu Euskal-erriko txapelketetan. 1922'garrenean argitara emon eban bere le-nengo olerki-liburu *Txinpartak*. Arrez-kerro be, asko idatzi dau ta oraingokoan, oneitatik onenak. *Intza begietan* izenez emoten dauku. Lekuona apaizak dagio itxaurrea, guztiz egoki, ta Ayalde'k iru-diak; onek gaiñera, zentzunez diño li-buruaren azal-orrian: «Intza begietan... Amaren oroi xamurra, beste Ama il-zo-rian ikustea, lore igartuak, guda zita-len ondoreak, txori abeslarien eriotzak, eta olako beste olerki-gaiek intza bus-tita ditute olerkari onen begi argiak». Txukun argitaratuta liburu: euskeraz ta erderaz olerkiak. Zorionak, Satarta maite.

A. O.